



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Larunbata
2010-02-20**

VIII. URTEA 1.933. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

«Duela zazpi urte gezurra ari zuen eta tamalez, bihar ere, gezurra ariko du»

KRONIKA 'Euskaldunon Egunkaria' itxi izana salatzeko ekitaldia burutu zuten atzo Martin Ugalde Kultur parkean

TOLOSA Egunkariaren sostengu taldeak kazetaren aldeko eguna antolatu du gaur 18:00etan Plaza Berrian 7



Duela zazpi urte itxi zuten 'Euskaldunon Egunkaria'; Andoaingo Martin Ugalde Kultur parkean atzo ekitaldia burutu zuten. GARI BERASALUZE

ESTIBALITZ ARMENDARIZ KOPILOTUA

«Pilotua nik gidatu behar dut, berak nik esandakoa egingo du»

BERROBI Euskal Herriko rally esprinteko kopolotu onenaren saria jaso berri du gazteak 5



A. BELAUNZARAN

ASIER ARREGI EREMU ELEKTROMAGNETIKOETAN ADITUA

«Egunez errazago jasaten dira eremu elektromagnetikoak»

ALEGIA 'Wifi-a eskoletan... teknologia ez-kutsatzailea?' hitzaldia eskainiko du etzi 2

E Elkarrizketa**ASIER ARREGI** › Eremu elektromagnetikoetan aditua

«Kalte elektromagnetikoak babesten dituen aseguru etxerik ez dago munduan»

Alegia » Wifi-ak eta beste eremu elektromagnetikoen eragin ditzaketen kalte biologikoetan «erregela bat topatzea zaila» dela dio Arregik, baina «eragiten dutela zalantzarik ez dut».

IMANOL GARCIA

Asier Arregik (Eibar, 1974) hitzaldia emango du Alegian wifi-ari buruz, etzi, 18:00etan Kultur Etxean, Udalak antolatuta. *Wifi-a eskolatan... teknologia ez-kutsatzailea?* izena du solasaldiak. Arregi ingeniari agronomoa da eta egun eremu elektromagnetikoen azterketak eta bizigarritasun azterketak egiten ditu, Geobiotek enpresaren bitartez.

Zenbateraino bizi gara eremu elektromagnetikoen ingurutan?

Gaia ez da bakarrik wifi-a eskolatan jarri edo ez. Higiene elektromagnetikoa kontzeptu bezala ezagutzen joan behar dugu. Wifi-a eskolan, gauean wifi-a itzali gabe ohetik metro gutxira, egunerogikorrarekin denbora asko hitz egiten... toki askotatik dauzkagu eraginak. Arazoa gizarte mailakoa da.

Eta gizartearen zenbateraino da kezka gai honen inguruan?

Ez da interesatzen horretaz jabetzea. Zientzian sekulako eztabaida dago. Badaude zientzialariak esaten dutenak efektu biologikoak daudela eta beste batzuk esaten dutenak ezetz, efektuak termikoak bakarrik direla eta egungo babes mugak egokiak direla. Efektu biologikoak daudela ziurtatzen dituenek muga horiek milaka aldiz jaiste proposatu dute.

Zein dira hemengo mugak?

Hemen, telefonian mugikorrek gaur egungo mugak 4.500 miliwatt metro karratuko dira (GSM900). Salzburgon, adibidez, muga legala miliwatt batekoa da. Espainian Gaztela-Mantxak Salzburgo muga hartzea erabaki



HITZA

zuen eremu sentikorrentzako, hau da, eskolak, haurtzaindegia, parkeak, ospitaleak... Espainiako Gobernua auzitara eraman zuen neurri hori eta Gaztela-Mantxak irabazi zuen auzia. Guretzat gune sentikorrena ohea da. Gauez zaurgarriagoak gara. Buruak korronte elektromagnetikoen funtzionatzen du eta gauez frekuentzia hori jaitsi egin behar dugu lo egiteko. Atsedean egoera batean sartzen da gorputza eta egoera horretan eragina bortitzagoa da egunez baino. Egunez errazago jasan daiteke wifi-a edo beste eremu elektromagnetikoa.

Telefono mugikor batek zenbat miliwatt sortzen ditu?

Dezente. Antena batek edo wifi igorgailu batek baino askoz gehiago kutsatzen du. Gehienez 2 wattetan emittitzen du, beraz erraza

da 50 edo 100 miliwattetan aritzea erabilpenean. Bestalde, oso ezberdina da batetik eta bestetik jasotzen dena. Mugikor batetik izaten duzun elkarrizketak irauten duen bitartean jasaten duzun eragina etengabea da, antena baten kasuan bezala. Hori bai, antenaren igoetzea handituko da bertara konektatzen den mugikor kopuruaren arabera.

Alegiako hitzaldian eskoletan wifi-a jartzeari buruz hitz egingo duzu.

BBC katearen *Panorama* programari horri buruz hitz egin zenetik piztu da polemika. Bestalde, Pariseko sei liburutegietan ez dago wifi-rik. Batzuetan ez dute ipini eta beste batzuetan kendu dituzte osasun arazoengatik.

Wifi-ak izan ditzaketen eraginaren inguruan zer iritzi du?

Zientziak dionari begiratzear gain, zuzeneko kasu asko ezagutzen ditut. Ikerketa batzuk multinazionalak ordaintzen dituzte, beste batzuk unibertsitate publikoek egiten dituzte, eta beste batzuk pribatuak. Denetarako iritziak daude. Eragin kaltegarriak dituela dioten arteen zientzialari talde oso garrantzitsua dago, www.bioinitiative.org webgunean ikerketak biltzen dituen, eta baita Nobel sariak ematen dituen Karolinska Institutua ere (Salzburgeko erresoluzioa, Beneventoko erresoluzioa eta abar). Hor badaude zenbait ikerlari ikerketa dezente egin dituztenak, besteak beste, Olle Johansson. Beste aldean, badaude esaten dutenak frogak ez direla nahikoak edo ezin direla harreman zuzenak frogatu. Zaila da eragin biologikoetan erregela bat

topatzea. Gertatu daiteke eremu batek pertsona bati gehiago eragitea beste bati baino. Baina eragiten duela zalantzarik ez dut.

Eta zer eragin izan ditzake?

Wifi-arekin normalak dira buruko minak izatea edo areagotzea. Estresa ere bai. Begiek ere asko sufritzen dute. Mikrouhinek lehortu egiten dituzte begiak eta hauek ez dute defentsa naturalik lehortasun horri aurre egiteko. Esaterako, Baionako Komertzio Fakultatean zorabioak, egonezinak, goragalea zituen jendeak eta aireko alergenak-eta hasi ziren neurtzen. Egun batean bururatu zitzaizen wifi-a deskonektatzea eta sintomak desagertu egin ziren. Ezagutzen ditut pertsonak sintomatologia bat jasaten zutenak eta wifi igortzailea oso gertu zutenak. Wifi-a kendu ondoren sintomatologia hori desagertu egin zaie. Sintomak askotan ezberdinak izan daitezke, pertsonen arabera. Izan daiteke buruko mina, azaleko mina, nerbio sistema aldatzea... Ez da erraza hori neurtzea. Eragin biologikoetan sartzen garenean, ez ditugu denok modu berdinean jasaten. Kontu honetan oso datu garrantzitsua da munduan ez dagoela aseguru etxe bat eremu elektromagnetikoen kalteak babesten dituen. Beraiek ondo irakurtzen dituzte zientzia artikulak eta bere balorazioak egiten dituzte.

Teknologia horien inguruan interes asko daude...

Interes asko daude eta diru asko mugitzen da. Telefonian mugikorraren negozioa, lehen ez zena existitzen, egun diru gehien mugitzen duenatarikoa da.

Diotenez, eskoletan wifi-a jartzeari argudioetako bat da teknologia hori merkeagoa dela.

Ez dut ulertzen argudio hori. Haurrak postu finkoetan egon ohi dira, eta arduraz printzipio bezala, kableak jartzeko aukera dagoenean... Ez da interneten aurka gaudela. Alternatiba baldin badago, kableak jarri eta kito. Zenbat garestiago da hori?

Hainbat eskoletan hitzaldiak ematen ari zara. Gurasoen artean kezka dagoela sumatzen duzu?

Kezka badago. Bestela denbora kontua izango da. Arazoa nabaria goa denean hasiko gara bizkortzen. Eskolakoari baino gauekoari, etxeokari, ematen diot garrantzia gehiago. Aste honetan jakin dut, tumore onbera bat zuen haur baten kasua. Medikuek ebakuntza egin nahi zuten, kentzea erraza zela esanez. Gurasoak informazio bila mugitzen hasi ziren eta eremu elektromagnetikoen gaiarekin egin zuten topo. Haurrak distantzia laburrera zuen wifi-a, paretaren bestaldean. Wifi-a deskonektatu zuten eta aste gutxitarra tumorea desagertu zen. Edozein zientifikok, arrazoi falta barik, esango du ezin dela frogatu kausa-efektu harreman zuzena dagoenik, baina datuak ghitzen doaz.

Iragarki laburrak

ESKAINITZA

■ **Bigi Garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. 638 94 46 04 (Gurutze) edo 695 708 271 (Belen).


LANA

■ **Zerbitzaria.** Egun eirdirako zerbitzaria behar dugu Tolosaldeko jate eta taberna baterako. Euska-

raz hitz egitea eta kotxea izatea beharrezkoa da. 695 78 52 63 telefono zenbakira deitu.

■ **Taberna-zerbitzaria.** Tolosaldean taberna-zerbitzari bat behar da ostiral eta larunbatetan lana egiteko. Deitu: 650 04 31 39.

■ **Zaintzailea.** Emakume bat behar dugu, arratsalde 4 ordutik adindun emakume bat zaintzeko. Deitu: 616 83 25 99.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Lapurdira irteera egin zuten Zizurkilgo emakumeak. HITZA

Martxoak 8, Emakumearen Nazioarteko Eguna

Gizartea » Alkiza, Alegia, Ikaztegieta eta Zizurkilgo emakumeen eguna ospatzeko ekitaldiak antolatatu dituzte eta Anoetan bilera egingo dute.

ERREDAKZIOA

Herri gehienetan martxoaren 8ko Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatuko dute. Ez dira egun asko geratzen eta jada herri batzuek ekitaldiak antolatatu badituzte ere beste batzuek bilerak egin behar dituzte oraindik. Anoeta, hain justu, prestaketa lanetan ari den herrietako bat da eta horregatik Udalak egun honetarako ekitaldiak antolatzeko bilera antolatatu du datorren hilaren 23rako, astearte. Udaletxean izango da hitzordua, 18:00etatik aurrera. Ohi bezala, Udal arduradunek herritar guztiak animatu nahi dituzte bertara azal daitezten.

Alegian jada antolatatu dute eguna eta martxoaren 6an ospatuko dute. 21:00etatik aurrera Kultur Etxean elkartuko dira eta afaria eta dantzaldia izango dituzte. Afariaren prezioa 25 eurokoa da eta txartelak salgai daude Kultur Etxean bertan martxoaren 4a arte. Afariaren ostean dantzaldia izango dute.

Ikaztegieta jada Jai Batzordeak prestatu ditu martxoak 8 egu-

nari lotutako ekintzak. Martxoaren 6an, Begiristain sagardotegian 14:00etan bazkaria egingo dute. Horretarako, hilaren 26a bitarte, Toki-Alai Jatetxean txartelak salgai egingo dira 25 euroren truke. Martxoaren 8an bertan, 19:00etan elkarretaratzea egingo dute udaletxearen aurrean eta ondoren, Herrigintza Elkartearen *Las chicas del calendario* filma eskainiko dute.

Alkizan ere prestatu dute eguna eta 21:00etan Alkizako Ostatuan elkartuko dira. Menu ederra izango dute afaltzeko: zizka-mizkak, urdaiazpikoa, etxeko pastela, entsalada epela, arrain zopa, bakailao frijrituta piperrekin eta txuleta zati-tan. Bukatzeko, Petit suisse txokolatearekin jango dituzte. Edaria eta kafea ere barne izango dira. Afariaren kostua 25 eurokoa izango da eta izena emateko 943 693930 telefonora deitu behar da. Apuntatzeko azken eguna martxoaren 3a, asteazkena, izango da.

Zizurkilgo emakumeen 6an ospatuko dute egun berezia eta Iruneko Ojasso Museo Erromatarra eta Santa Elena Ermita bisitatuko dituzte. Ondoren, Hondarrabiko Ardora Jatetxean bazkaria egingo dute. Izen ematea Aurrera Plazako bulegoetan eta liburutegian egin beharko da. 28 euro ordaindu beharko dira.

Hilaren 23an, 20:30ean ohiko osoko bilkura egingo dute Alkizan

ERREDAKZIOA

Hilaren 23an, astearte, 20:30ean ohiko osoko bilkura egingo dute udaletxeko bilkura aretoan. Bertan, besteak beste, ondoren zehazten diren gaiak aztertuko dituzte: 2010eko urtarrilaren 26an egindako ohiko bilkuraren akta; alkatetza ebazpenak; fakturak eta ordainketen berri emango dute; VII. Aiztondoko klasikoari 2010eko ekarpena burutzea, hala badagokio; Erniozaleak kultur elkarteari 2010eko ekarpena burutzea, hala badagokio; eta bukatzeko erregru, galdera eta mozioak izango dituzte hizpide.

Liburutegiak eta KZguneak udako oporrak bitarte ordutegi berria izango dute

Alkiza » Astelehen eta ostegunetan egingo da zabalik; Kzguna hortik kanpo erabiltzeko aukera izango da.

ERREDAKZIOA

Liburutegian ordutegi berria jarri dute. Hilabete honetatik hasita, udako oporrak bitartean, ordutegi hau izango du liburutegiak: astelehenetan 17:00etatik 19:00etara eta ostegunetan 08:30etik 13:00era eta 17:00etatik 19:00etara egingo da zabalik.

Erabiltzaileentzako ordutegi berri hau egokiagoa izango dela-koan daude liburutegiko arduradunak eta arduraduna Itsaso izango dela aurreratuko dute. KZguneak ere liburutegiko ordutegi izango du, baina ordutegi horretatik kanpo erabili nahi izanez gero Jose Maria Aranzabelekin harremanetan jarri beharko da telefono honetara deituta: 675 713 251.



Sagain Mendi Taldeak antolatutako beste irteera bat. SAGAIN

Sagaindik eski alpino irteera Gourettera

Asteasu » Hilaren 28an 05:30ean Asteasutik eta 05:45ean Villabonatik abiatuko dira; itzulera 20:00etan egingo dute.

ERREDAKZIOA

Sagain Mendi Taldeak, Eski Alpino irteera antolatu du Gourettera (Frantzia) hilaren 28rako. Familia guztiari, baina bereziki 12-18 urteko gazteei, zuzendua dago.

18 urtetik beherakoek, gurasoen baimena, udaletxeko errolda ziurtagiria eta NAN, pasaporte edo famili liburuaren kopia eraman be-

harko dituzte. Bidaia eta forfaitaren kostua 18 urtetik beherakoentzat 45 eurokoa da eta 18 urtetik gorakoentzat 52 euro. Izena kiroldegian eman beharko da eta horretarako azken eguna, hilak 24 izango da eta 20 euro aurreratuko beharko direla ere argitu dute. Irteera Asteasuko udaletxe aurretik 05:30ean izango da.

Bihar Orduñara

Egun osoko mendi irteera ere egingo dute bihar 08:00etan udaletxe aurretik aterata. Orduña aldera joango dira eta Lendoñogitia, Tologorri, Txarrazo eta La fuente de la choza zeharkatuko dituzte.

Martxoak 5 da lanak aurkezteko azken eguna

Anoeta » Udalak eta Ikastolak elkarlanean antolatzen duten Hizki-Marrazki marraztuen ipuin lehiaketa martxan dago.

ERREDAKZIOA

Hizki-Marrazki ipuin marraztuen lehiaketa martxan dagoela gogoratu dute antolatzaileek, hau da Anoetako Udalak eta herriko Ikastolak. 8 urtetik gorako Anoetako Ikastolako ikasleek eta Anoetan

errolatutako pertsona guztiak har dezakete parte bakarka edo bina. Ipuinak marraztuak izango dira, hau da, euskarazko testuz eta marrazkiz osatuak. Ipuinak eskuz edo ordenagailuz idatzita egon daitezke. 12 urte bitartekoek guxtienez orrialde bat eta gehienez hiru aurkeztu beharko dituzte marrazkiak barne. 12 urtetik gorakoek, aldiz, 4 orrialde gehienez.

Lanak aurkezteko azken eguna, martxoak 5 da. Ikasleek Ikastolan eta gainerakoek udaletxean edo kiroldegian aurkeztuko dituzte.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Udalak herriko elkarteak diruz laguntzeko irizpideak finkatu ditu

Berastegi » Eskuera hilaren 28an baino lehen egin beharko dute interesatuek; hainbat ezaugarri bete beharko dituzte elkarteek.

ERREDAKZIOA

Berastegi Udalak «herriko kultur, kirol eta gizarte dinamizazio» mantentze aldera eta «bide eta eginkizun berriak bilatzeko» xedez elkarteak diruz laguntzeko emateko irizpideak eta prozedura finkatu ditu.

Hala, ezaugarri ezberdinetako elkarteak jaso dezakete Udalarren laguntza. Zehazki, bost ezaugarri zehaztu dituzte. Batetik, bere borondatez jarduerak kolektibo egonkor bat burutzeko bildu diren pertsonen osaturiko elkarteak izatea. Bestetik, bere helburu eta jardue-

rek balio publiko eta soziala izatea. Xede ekonomiko edo irabazi asmorik ez duten elkarteek ere jaso ahalgo dute laguntza hori. Halaber, gizarte, kultura eta kirol gaietako elkarteentzat ere zuzenduak izango dira, beti ere herriaren sustatzea eta hobetzea bilatzen badute. Azkenik, herriko eremuan edota herriaren onurarako ahalaginetan dihardutenak aipatzen ditu Udalak onuradun bezala.

Udalak kontuan hartuko dituen irizpideak

Dirua jaso nahi duten elkarteak jakinarazi diete kontuan hartuko dituzten irizpideak. Besteak beste, egiten dituzten jarduerak aztertuko dituzte Udaletik, «herriarentzat duten garrantziari, ekarpenari eta proiektu sozialari» erreparatuz.

Erakunde eskatzaileak duen

ibilbidea, egonkortasuna eta partaidetza ere hartuko dituzte aintzat, «diru aldetik duen autonomia eta beste erakunde publiko zein pribatuetatik jasotzen dituen diru laguntzari» ere begiratuko dietelarik.

Eskaera egiteko baldintzak

Diru eskaera otsailaren 28a baino lehen aurkeztu behar dute interesatuek. Diru laguntza ematearen erabakiarekin batera, maiatzaren amaierako onartutako kopuraren %60a aurreratuko zaie elkarteak eta programa guztiz ordaindu dutela frogatzen dutenean, berriz, beste %40a.

Halaber, Udalak izendatutako ekintzak burutzeko, burututako ekintzaren memoria zehatza eta diru sarrera eta irteeren balantze orokorra aurkeztu beharko du elkarte antolatzaileak.

Lauburu UPVren aurka neurtuko da, gaur

Ibarra » Donostiako Bidebieta kiroldegian jokatu dute ibartarrek, 16:00etan; «partida gogorra» aurreikusiko dute.

ERREDAKZIOA

Lauburu areto futboleko jokalariek UPV taldea izango dute gaur aurrez aurre 16:00etatik aurrera. Derby honetarako ibartarrek donostiarren etxea bisitatuko dute, Bidebieta kiroldegia, hain zuzen ere.

Partida gogorra izango da, UPV taldea jaitsiera postuetan aurkitzen baita, etxeko garaipena beharrezkoa delarik berarentzat.

Jokalarik guztiak prest izango ditu Txubel entrenatzaileak gaurko neurketarako. Ibarra areto autobusa 14:15ean abiatuko da eta taldeko arduradunek zaletuak Donostiara bertara daitezten animatu dituzte.

Jubenilek ere gaur jokatu dute, 10:30ean Belabietan, Astigarragako Ceramicas Nogalesen aurka, lehen postua mantentzeko helburuz.

Etzi, Udal Aurrekontuak eztabaidatuko dituzte

Amezketak » 20:30etik aurrera udaletxeako pleno ardean egingo dute bileran beste hainbat gai ere jorratuko dituzte.

ERREDAKZIOA

Etzi, astelehena, hirigintza, obra, kultura, ingurumena eta kontuen batzorde berezikoek bilera egingo dute, 20:30etik aurrera, udaletxeako pleno ardean.

Bertan, besteak beste, 2010 ekitaldirako Udal Aurrekontuen in-

guruari ariko dira. Hala ere, beste hainbat gai ere jorratuko dituzte, tartean, obra txikien inguruan jardungo dute; hirigintza kontsulterei edo informazioari buruz; herriko ur sarea zatikatu eta kontrol informatikoa ezartzeko obrarako proposamenak ere aurkeztuko dituzte; Naturgas enpresak, 2009 ekitaldian lurzoru publikoa erabiltzeagatik ordaindu beharreko %1,5eko tasa aztertuko dute; eta jubilatuen, kirolen eta ikastaroen egitarauak eta bertso barmetegiaren proiektua aurkeztuko dituzte azkenik.

Laburrak

Amaitzeak da zabor bilketa tasa ordaintzeko epea

IKAZTEGIETA » Iazko 2. seihilekoko zabor bilketa tasari dagozkion erreziiboak ordaintzeko epea martxoaren 3an bukatzen dela gogorarazi dute Udaletik. Ordainketa, banketxetan nahiz udaletxean egin ahal izango da. Martxoaren 3an ordaindu ez diren erreziiboak eta bankuak bueltatzen dituenak, errekgarekin eta berandutze interesekin kobratuko dituzte.

Bi film ikusgai Gureako zinema eskaintzan

VILLABONA » Gurea aretoak asteberurako zinema eskaintza zabala aurkeztu du. Gaur eta bihar, esaterako, 17:00etan *Hotel para perros* filma izango da ikusgai. *La decision de Ane* pelikula ere emango dute, gaur 19:30ean eta 22:30ean; bihar 19:30ean; eta etzi, astelehena, 21:30etik aurrera. Astelehena, gainera, ikuslearen eguna izango da.

Pirinioetara irteera antolatu du Oargik

TOLOSA » Hilaren 26, 27 eta 28rako Pirinioetara irteera antolatu du Oargi elkarteak. Castillo de Achert eta Chipeta Altora mendiak igo nahi dituzte. 20 euro aurreratu behar dituzte joan nahi dutenek, Euskadiko Kutzaren 3035 0028 11 0281141038 kontuan edo elkartearen. Neguko materiala eraman behar da. Izena emateko 688 698 642an edo info@oargi.org.

21. LILATON

HITZA taldea osatu nahi dugu.
Izan nahi duzu zuk
HITZA taldeko kide?

Berri 943-46 72 36 telefonora edo idatzi donostia@irubulokohitza.info
Leren emaitza norberaren esku.
Argibideak: www.lilaton.com helbidean

Ekainera arte xake txokoan izena emateko aukera zabaldu du Udalak

ERREDAKZIOA

Lehen Hezkuntzako lehen eta seigarren maila arteko ikasleentzat xake txokoa antolatu dute Anoetan. Orain hasi eta ekainaren 18ra arte ostiralero, 17:15etik 20:15era Hozpel kaleko Udal Lokalean xakean aritzeko aukera izango da, hartzat. «Xakean jolasten ondo pasatzeko aukera bikaina da; familia osorako klub antzekoa izango da», azaldu dute Udaletik eta «erabat ludikoa da, denbora pasatzeko», gaineratu dute.

Interesatuek izena eman dezakete xake txokoan bertan. Familia bakoitzak 8 euro ordaindu behar du. «Ez da derrigorrezkoa ostiralero joatea, baizik eta nahi duzenean, inongo konpromisorik gabe», argitu dute Udal ordezkariak.

Euskadiko Txapelketako jardunaldi berria Aurrera-Saiaz elkartearentzat

ERREDAKZIOA

Aurrera-Saiaz elkarte pilotarietako jardunaldi berria jokatu dute gaur Euskadiko Txapelketan. Tolosako Beotibarren 10:00etatik aurrera lau partida izango dira: Imanol Maiza eta Ion Elustondo kadeteak Gure Pilotakoen aurka; Xabi Urbietak eta Txomin Zinkunegi jubentziak Oberenaren aurka; Joseba Senperena seniorra Adurtzaren aurka; eta Ion Otaegi, 22 urtez azpikoan San Miguelen aurka.

Arratsaldean, berriz, 18:00etatik aurrera ariko dira Aurrera-Saiazekoak: Ion Urbietak eta Aitor Biain Irurtzunen aurka; Ekaitz Nabarte eta Luis Angel Zubiri Di Da Legutien aurka; eta Ugaitz Renobales Xabier Telletxea Ozkarbiren aurka. Alex Sukia eta Koldo Galarraga Lakuan ariko dira 16:30ean.

E Elkarrizketa

ESTIBALITZ ARMENDARIZ » Kopilotua



ABELAUNZARAN

«Lasterketan emakume bakarra izatea egokitu zait askotan»

Berrobi » Estibalitz Armendariz gazteak irabazi berri du Euskal Herriko rally esprinteko kopilotu onenaren saria.

AGURTZANE BELAUNZARAN

Abiadura maite du Estibalitz Armendarizek (Berrobi, 1987), hala ere dio hitzordura ekarri duen elastikoaren leloak ere: «Lasterketa gehiago eta futbol gutxiago». Adrenalinak goia jo artean, Joseba Zapiain pilotuarekin kopilotu lanetan aritu da Euskal Herriko bazterretan rallysprint modalitatean Peugeot 206 horiarekin.

Bihurguneak abiadura bizian txukun-txukun nola hartzen diren azaltzeko Euskal Herriko rally esprinteko kopilotu onenaren txapela jarri dio Berrobiko gazteari buru gainean.

Mailen Lujanbio txapelarekin etxera eta zu ere pareko, ustez gizonetakoak gailentzen ziren abiletan emakumeak txapeladun!

(Barreak...) Motorra eta auto lasterketan mundua beti lotu izan da gizonetakoekin. Parte hartzaileen kopurua orekatua ez den arren, bagaude emakume batzuk tartean, kopilotu, pilotu eta zaletuak errepidean autoak animatzen. Auto barruan tapatuegi goaz, kasiko eta guzti, baina batzuk izan bagara. Hala eta guztiz ere, gogoan dutaurren lasterketabatean 60 autok parte hartu zutela eta ni neuz

nintzela emakumezko bakarra 119 gizonetaz gain artean.

Lasterketa modalitate ugari daude; formula 1, formula 3, igoerak, rallyak eta rally sprint-ak...

Gure modalitatean errepide normalean lehiatzen gara, igoera eta rallyetan bezala. Formulakoak berriz zirkuituan ibiltzen dira biraka. Gureak duen berezitasuna, 6 edo 7

«Azken minutuan urduritasuna eta adrenalina sentitzen ditut»

kilometrotako errepide tarte berdina hiru aldiz egin behar dugula da. Beraz, lehen aldiz lehiatu ostean, irteera puntura iristeko, errepide egin behar dugu bidea, baina dauden trafiko seinale guztiak errespetatuz. Asistentzia puntutik kopurua orekatua ez den arren, bagaude emakume batzuk tartean, kopilotu, pilotu eta zaletuak errepidean autoak animatzen. Auto barruan tapatuegi goaz, kasiko eta guzti, baina batzuk izan bagara. Hala eta guztiz ere, gogoan dutaurren lasterketabatean 60 autok parte hartu zutela eta ni neuz

Zein da kopilotuaren lana?
Lasterketa aurreko astean hasten da nire egitekoa. Pilotuarekin ba-

tera, autoa hartu eta errepidearen irakurketa eta deskribapena egiten da, beti trafiko seinaleak errespetatuz. Behin baino gehiagotan egiten dugu bide bera, ahalik eta espeziфикoena izan behar baitu datu bilketa.

Ibilbidearen nondik norakoak idazten dituzue orduan?

Halaxe da, ibilbidearen planoan bihurgunetik bihurgunera dauden metroak neurtzen ditugu, bihurgunearen norabidea eta zabalera baloratu eta zailtasun maila letik 5era puntuatzen dugu. Errepidean egon litezkeen aldeak, zuloak eta ur putzuak ere identifikatu egiten ditugu lasterketa egunean dena baliogarri izango baitugu.

Eta lasterketa egunean....

Lasterketa egunean autoa kontrolgunetik pasatzen dugu, antolakuntzak dena ezarritako arauen arabera dagoela egiaztatzen dezan; motorraren indarra, gurpilak, su itzalgailua eta abar. Bestalde, niri erlojuaren kontrola eramatea dagokit, pilotuari lasterketa puntuan zein ordutan egon behar dugun finkatu eta kotxean dena prest egoteaz arduratzen naiz. Lasterketa aurreko azken minutuan urduritasuna eta adrenalina, biak batera, sentitzen ditut. Lasterketan zehar, pilotuari aurreko astean egindako datu bilketa irakurtzen diot; bihurgune batetik bestera dagoen alde, metroak, zailtasuna maila, bihurgunea zabala edo itxia

den... den dena. Pilotua nik gidatu behar dut errepidean. Ezkerretara joateko esaten badiot, bera ezkerretara joango da. Berak nik esandakoa egingo du.

Nolatan hasi zinen kopilotu lanetan?

Auto eta motorren mundua oso oso gustuko dut. Lagunekin askotan joaten nintzen auto lasterketak ikustera, baina orain hiru urtetik lasterketak barrutik bizi ditut, pilotuari aginduak ematen. Lagun batek auto lasterketetan parte hartzeko autoa erosi zuela eta kopilotu baten bila zebilela esan zidan.

«Pilotua nik gidatu behar dut; ni nahasten banaiz, berak nik esandakoa egingo du»

Neronek proposatu nion bere kopilotu izatea. Proposamenak ordea serioetasuna eta jarraipena eskatzen zuen. Kopilotu izateko indartsio txiki bat egin behar bainuen materialean; suaren aurkako arropa, oinetakoak eta kasikoa... Gustatu eta hiru urtez nabil Euskal Herriko rally esprinteko lasterketetan batetik bestera. Azken urtean, Joseba Zapiain pilotuarekin ibili naiz, Peugeot 206 autoarekin. Berak irabazi du pilotu onenaren saria, nik berriz kopilotuarena. Bion arteko harremana ona izatea ezinbestekoa izan da.

Ordu asko ematen ditugu elkarrekin entrenatzen eta lasterketan eta adrenalina topera izaten dugu, tentsio handiko uneak izaten dira, dena di-dabatean egin behar dugu, azkar eta ondo. Ikaragarria da ere, autoan zoazela ezagunak ikustea errepide erdian animatzen, oilo ipurdia ateratzen zait ilusioarekin.

Lasterketa bakoitza ikasteko abagunea al duzu?

Dudarik gabe. Ezer jakin gabe hasi nintzen eta nabari dut lasterketetik lasterketara hobetuz noala. Pilotu ezberdinekin ibilinaiz eta bakoitzak bere lan egiteko modu propioa du. Hala ere, bada Lugon, kopilotuentzako eskola bat Luis Moya kopilotuarena, eta gustura jasoko nitzuke hango klase teoriko eta praktikoko.

Pilotuaren eserlekuan jartzeak tentatzen al zaitu?

Asko ikasi beharko nuke auto bat pilotatzeko. Lasterketa autoak ez baitira nola nahikoak, azeleratzailea zapaldu eta hegan zoaz! Baina, zergatik ez! Akzio handiko kirolak ditut gustuko eta ikastean dago gakoa. Zailtasun bat ikusten diot aukera horri, hala ere, pilotu izateko auto propioa izan behar duzu eta poltsikoak agintzen du afizio honetan. Zailtasun garestiegia da hau eta ordainetan irabazi ekonomikorik ez dugu izaten, sustoren bat agian noizbait.

Adrenalinak eta akzioak sustoak ematen ditu ordainetan, alegia.

Zorionez izandako istripuak ezustetxoak besterik ez dira izan, hasiera garaietan izan nituen. Amaitu berri den denboraldian lan txukuna egin dugu eta oraintxe hasi dugunaren saria, nik berriz kopilotuarena. Bion arteko harremana ona izatea ezinbestekoa izan da.

Emakumeak protagonista dituen ekitaldiak Aranburu Jauregian

Tolosa » Martxoaren 3tik apirilaren 10a bitarte tailerrak, hitzaldiak, dantza saioak eta mahai-inguruak izango dira.

berean, dokumental bat ere ikusi ahal izango da Aranburu Jauregian martxoaren 3tik aurrera.

AurrezAurre

Ekimenak AurrezAurre du izena eta hilaitez «emakumeon gela»

izango da, Virginia Wolf idazleak 1927an egindako adierazpena gogora ekarri. Hau da, emakumeen literaturarik ba ote zengaldetu zioten eta «emakumeek, literatura egiteko, beren gela eduki behar dute» erantzun zuen.

ERREDAKZIOA

Emakumeak protagonista dituen argazki erakusketa izango da Tolosako Aranburu Jauregian martxoaren 3tik apirilaren 10a bitarte AurrezAurre izenpean.

Erakusketan artista desberdinen lanak bilduko dituzte, hala nola, Eli Garmendia, Susana Seguro, Vanessa Alzate, Ana Elena Pena, Francisca Ribeiro, Cristina Malkorra, Amaia Gomez, Julieta Metralleta edo Landa Eremuko Emakumeak taldeak egindako argazkiak.

Baina ez da erakusketa bat bakarrik, izan ere, horren barruan hainbat ekitaldi izango dira; mahai-inguruak, tailerrak, hitzaldiak, dantzaldiak, performanceak... Era

» EGITARAUA

■ **Martxoak 3.** 19:30ean inaugurazioa egingo dute.

Lorearen Nahia dantza integral saioa ere izango da.

■ **Martxoak 4.** 18:30ean Arte(a) eta Feminismo(a) bezala batailatutako mahai-inguruak egingo dute Arakis Montehermosoko zuzendariarekin eta antropologian eta artean katedraduna den Lourdes Mendezekin.

■ **Martxoak 5.** 17:00etan *Kalean margotzen ondo pasatzen dut* izeneko tailerra Carole Bielickiren eskutik.

■ **Martxoak 6.** 20:00etan HIGA Antzerkiaren *Ene Poltsa handia* eta biok lana.

■ **Martxoak 15.** 18:30ean Afrika mendebaldeko dantzak Tolosako Jabekuntza Eskolako Dantza Afrikarren Taldearen eskutik. Era berean, Isabel Franc (Lola Vanguardia) *Umorean Artea* hitzaldia ere izango da.

■ **Martxoak 16.** 16:30ean Ana Belen Jarrin *Irudirik urbilena* tailerra. Tailer honetan parte harzeko kamera digital bat eraman behar dela argitu dute.

■ **Martxoak 17.** 18:30ean *Praktika artistikoak-praktika feministak* mahai-inguruak Maria Mur artista eta Consonniko kidearekin eta Estibalitz Sadaba artista eta Erreakzioa taldeko kidearekin.

Joandako haizek ezin arnas berrik eman



» Herrira begira

Aimar Sagastibelza
Futbol jokalaria

Bigarren postu txukunen seitzu 13 partidutik faltan, beño itxure denez ezta aski. Liga irabazteko inahala behar da. Hone da klubetik jaso berri duna exigentzia; erronka haunditua aukeran. Pertsonalki, Terulea etorritan nire burui jarri nion helburu inportantetako bat 30 partidutik gora jokatzea izan zen. Izane, malla txukunen aitu zana señaleari markatzen do kopuru hontan aiatzek, normalen behintzat. Ba momentuz markatutako biden noa, ikusi nola bukatzen.

Bestalde, Leitzeko Ihote berezitatik aparte hiru urte luzez eon ondoren, aurtengoa bixite tiki bat itteko aukera aprobetxatu nun. Baserritako eskera joan nitzen lehenbizikoz eta eun bete-betue botagiuun (gaue zeresanik ez jeje). Eskertzekoa baserri guzitan jasotako tratue eta jan-edanan emana. Josebak, *Poligonok*, etxe bakoitzeko baserritarri botatako bertsoko apagarrik.

Pereza pixko batekin bueltatu nitzen Terulea, beño beno, kirol aspektun ongi joatek dexente launtzen do. Gañea, otsallen erdie pasatu de ta hemengo tenperaturek goxatuko dien esperantzaz nau. Okerrera pasatue izanen ahal da. Aurre hontan -4 gradu eta *zier-tzoakin* jokatu giñun; sekulen ez nun halako sentsazio hotz-mingarririk jokatu partiduk!

Ba hoixe, negun hotz galanta ta udan bero latza itten do. Basamortungisen.

Hau alde batea utziz, nere *kintako* bi kirolari leitzar goratu behar. Batetik bi txapelketa irabazi berri ditton Ibai Bengoetxea pillotarie. Jokoan dauku Ospelaldeko aurrelarie. Bestetik, Mikel Nieve txirindularie, Mallorkako itzuliko etapa baten lortutako 4. postu ikeragarri-ringatik. Emaitzak lortzeko egarrikin seittu dezateala, kirolarik in-konformista eta ambiziooso behar baito.

Bide batez, barkatuko al ditea merezimentuk euki arren nere aipamenik jaso gabek dien hainbat herritarrek.

Azkenik, Abel Barriolakin bukatu behar. Hitez esplikatzera zalle den kalbarioa pasa ondoren lesioan azken fasen dau. Bi-hiru astez lesionatue eon izan naizetan ze amargatue eta jasaneziñe bihurtzen naizen jakinda, in dezaket Abelek jasandako mixerin idea tti-bat. Apa motel.

Jon Rosalesen «neskalagunaren» baserria miatu dute

Areso » Herrira doan errepidean kontrola jarri zuen Guardia Zibilak, bien bitartean baserri bat miatzen aritu ziren.

soko sarreran, Guardia Zibilak kontrola jarri zuen, «bertan denak gelditzen zituztelarik».

Hala eta guztiz ere ez zuten inor atxilotu.

Inkomunikazioaren harira

Atxiloteta saiakerak edo miaketak, Guardia Zibilak Ibai Beobideri inkomunikazio aldiaren ateraketa informazioaren harira datoz.

Ibai Beobide espeteratzeko agindu zuen herenegun Ismael Moreno epaileak, etakidea eta ETAKO taldeak koordinatzea egotzita. Beobidek, berriz, inkomunikazio egunetan «basatiki» torturatu zutela eta konortea galtzeraino «poltsa» egin zituela salatu zuen epailearen aurrean.

Herrialde Katalanetan atxilotu zituzten bi euskal herritarrek, Jon Rosalesek eta Adur Aristegik, Guardia Zibilaren eskuetan jarraitzen dute inkomunikaturik.

ERREDAKZIOA

Larunbatean Villabonan etakidea izatea egotzita atxilotu zuten Ibai Beobiderek lotuta, bi euskal herritar atxilotu zituen asteazkenean Mossos d'Esquadra Kataluniako Poliziak Camprodon ondoko Mollo herrian, Gironan (Herrialde Katalanak). Hauetako bat Jon Rosales bizkaitarra zen.

Herenegun berriz, Guardia Zibilak Aresoko baserri bat miatu zuen, «Jon Rosalesen neskalagunaren etxebizitza», Espainiako berri agentzien arabera.

Miaketak arratsalde guztia iraun zuen eta bien bitartean, Are-

Egunkaria Libre!

Otsailak 20 Tolosan Plaza Berrian

egitaraua

- 18:00 Erraldioen eta buruhaundien konpartsa
- 18:15 Bertsolariak: Amaia Agirre, Unai Muñoa eta Bixente Gorostidi
- 18:30 O+hatz taldea
- 18:45 Erraldioen eta buruhaundien irteera
- 19:00 Udaberri Dantza Taldea
- 19:15 Konpenezinak Koadrila
- 19:30 Izaro Salzar eta Elene Arandia
- 19:45 Bonberenea txaranga
- 20:00 Alurr Dantza Taldea
- 20:15 Mulambo Perkusio Taldea
- 20:30 Bertsolariak: Amaia Agirre, Unai Muñoa eta Bixente Gorostidi
- 20:40 Martxeloren hitzak
- 20:45 Tolosa kantari ekimeneko hainbat kide

Herenegun eta argotapena. Molate produktzina.

munduan libre bizi ahal izateko Egunkaria libre munduan bizi ahal izateko

Duela zazpi urte itxi zuten 'Euskaldunon Egunkaria'

'Egunkaria auzia' » Gaur Tolosako Plaza Berrian, 18:00etatik aurrera, Egunkaria Eguna ospatuko da kazetaren Sostengu Taldeak antolatuta.

ASIER IMAZ

Guardia Zibilak Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz *Egunkaria* itxi zuenetik zazpi urte beteko dira gaur. «Itxiera, atxiloketak eta torturak salatuzeko» ekitaldia egin zuten atzo Andoainen, Martin Ugalde Kultur parkean. Aurpegi eza-gun ugari elkartu ziren bertan.

Bestalde, gaur, Tolosako Plaza Berrian Egunkaria Eguna ospatuko da 18:00etatik aurrera. Ekimena Egunkariaren sostengu taldeak antolatuta du.

Sarrera

«Egun hartako irudiak betirako geratu dira. Egun luze haren irudiak behin eta berriro datozkigu memoriara. Guardia Zibilak gau ilunean, atxiloketak, torturak... bata bestearen atzetik». Hitz hauekin hasi zuten atzoko ekitaldia Andoainen. Hainbat euskal eragiletako ordezkari hartu zuten hitza bertan, besteak beste, Maialen Lujanbiok, Ramon Labaienek, Pedro Miguel Etxeniketik edo Mikel Astarizok. Euskal Telebistako albistegietako aurkezle ohiak, Maddalen Iriartek, Euskal Herriko kaze-

taritza goitiki behera biluztu zuten, hitzaldi benetan gogoangarri batean.

Ramon Labaien

Donostiako alkate izandako tolosarrak, Ramon Labaienek, bere tartetxoan ondorengo azpimarratu zuen: «Zazpi urte igaro dira guardia zibil armatuak etxe honetan sartu zirenetik. Zazpi urte hemen utzi zuten usain nazkagarria oraindik nabaritzen dela. Zazpi urte ilun pasa dituzue. Hurrengo zazpiak argiz beteak izango direla opa dizuegu. Zuen lagunak gare-nok, zuekin elkatasuna eta bereziki maitasuna sentitzen dugunok».

Bost auzipetuen izenean

Ekitaldia amaitzeko Juan Mari Torrealdaigo izen oholza txikira. Absolutioa guztiz garrantzitsua dela azpimarratu zuen Torrealdaigo, auzipetuen ikuspuntutik espexetik libratuko lituzkeelako, baina, bereziki, euskalgintzaren ikuspuntutik «tesi polizialaren aurka euskalgintzako proiektuei legitimitatea aitortu eta berrantze» lituzkeelako.

M Maddalen Iriarte kazetariaren hitzaldia

Mila aldiz entzun dugu baina errepikatu egingo dut: adierazpen askatasuna oinarritzako eskubidea da. Eta oinarritzako eskubide hori berriki egiten dute euren legedietan herrialde demokratikoek.

Hala da hori guztia, baina ez nuke hitz handi eta aldarrikapen borobiletan galdu nahi, askotan, gehiegitan entzun baititut hitz politik eta diskurtso ederrak adierazpen askatasunaren balioak gortsiz eta ondoren, diskurtsoaren egilea bera, informazioari mugak jartzeko ahaleginetan amorratuz beteta: publikatu behar ez omen zen zerbait argitara eman delako, kazetariak sakoneko interesak ez dituztela ulertzen esanaz.

Adierazpen askatasuna oinarritzakoa da gizarte demokratiko baten zatia. Ez da edozer gauza publikatzeko askatasuna ordea, informazioa lortu eta zabaltzeko eskubidea da.

Baina informazioa lortzea oso nekeza da gure gizartearen, udaletxe batean, diputazio batean, gobernuetan, nora bidaltzen dute kazetaria espediente bat eskatzera joaten bada? Ba normalean horixe, zuzenean haizea hartuz. Ez dago inolako mekanismorik benetako gardentasuna gauzatzeko duenik, eta badirudi, gainera, inori ez zaiola gehiegi axola.

Normalean adierazpen askatasunaren gabezia besteengan ikusten dugu. Oraindik ez diot inongo alderdi politikori entzun, esate baterako, informazioa lortzeko eskubidea arautuko duen lege bat beharrezkoa dela. Eta ez da izango ereduak falta direlako, hortxe daude Erresuma Batuko edo Estatu Batuetako legeak, agian perfektuak izango ez direnak baina ez dauzka-

gunak baino perfektuagoak. Euskal Herrian ez dago adierazpen askatasunik. Salbuespenak salbuespen, orokortuta dagoenak, nagusi denak, baieztatu baino ez du egiten salbuespen hori. Botereak edo agian esan beharko nuke botereek, zio politik, ekonomiko edo askalokoengatik, kazetarioi gure lanean mugak, oztopoak, egia interresatuak eta bertsio ofizialak jartzeko ditzkigute, besteak beste.

Ez da erraza aske izatea Euskal Herrian, eta gainera normalean ez da barkatzen. Aske izatea oso garesti ateratzen da. Baina gainera, Euskal Herrian gezurra jasaten da. Gezurra Euskal Herriaz, hizkuntzaz, herriaz... gezurra nahiez eta ametsez. Gezurra isilarazteko, ez-kutatze eta suntsitzea. Gezurra asko esaten da eta askok esaten dute gezurra. Gezurra dirudi baina gezurra esaten da adierazpen askatasunaren izenean.

Eta gezurra ari du.

Gezurra ari du egunerok. Gezurra ari du duela zazpi urte *Egunkaria* itxi zutenetik. Eta atzerago *Egin* itxi zutenetik. Baina Euskal Herria Irratia itozteko zorian dago, demokrazia ahotan hartuta, hitza kabitzen ez zaiola ari den gobernu batek ez du betarik ere hartzen,

behin eta berriz desagerrarazteko ahaleginean. Zaila da informazioa zabaltzea Euskal Herrian: Gezurra ari du gaur eta tamalez, gezurra ariko du bihar.

Duela zazpi urte asaldatuta irten ginen kalera *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutelako. Gaur hemen gaude berreskuratuko ez dugun kazetarik gabe, isekaz eta indarrez kendutako kazetarik gabe. Martxelok, Juan Mari, Xabierrek, Txemak, Iñakik eta hemen dauden beste batzuk ez dute berreskuratuko gainera galdutako denbora, pasatako beldurra eta sufritutako mina. Hori bai, ez dute galduko eta ez diegu kenduko, jazarrita ere, orduan eta orain erakutsitako herri honen aldeko maitasuna.

Absolutioa eskatu dute sufritu duten guztiaren aurrian. Besterik ezean, lotsaren lotsez, itxita beharko lukeen Espainiako Auzitegi Nazionalan. Horixe, absolutioa eskatu dute. Hura lortuta ere, hau guztia eta gero, gezurra ari du.

Nolanahi ere ez gaitzala etsipenak guztiz irentsi. Edward Murrrow-ek, adierazpen askatasunaren ikurtzat jo izan zen hark, esan zuen eta haren hitzak hartu eta erabilita esango dut: Eguedion eta zorte on!



Ramon Labaien tolosarra Maddalen Iriarte kazetariarekin. G. BERASALUZE



'Egunkaria auziko' bost auzipetuak atzo Andoaingo Martin Ugalde Kultur parkean. Itxieraren zazpigarren urteurreneko ekitaldian babes zabala jaso zuten. GARI BERASALUZE



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 034. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-ko Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

The Beatles taldearen doinuak Alde Zaharrean

Tolosa » Musika Eskolako ikasleak ere Piñata igandean aterako dira kalera azken sei urteetan egin duten moduan.

ERREDAKZIOA

Gutxi falta da aurtengo Inauteriak guztiz bukatzeko. Izan ere, Piñata igandea ere hor dugu oraindik. Bihar izango da eta urtero legez Poca-Tripa txaranga eta Txilaba Elkartearen konpartsa Iurreamendi Egoitzara joango dira. Baina hauek ez dira eguna pixka bat alaitzen saiatuko diren musikari bakarrak.

Seigarren urtez Tolosako



Azken urteetan egin bezala aurtengoan ere kalean izango dira Musika Eskolako 90 bat ikasle. HITZA

Eduardo Mokoroa udal musika eskolako ikasleak kalera aterako dira eta musika konpartsa batean parte hartuz zeharkatuko dituzte Alde Zaharreko kaleak.

90 ikasle

11:30ean aterako dira eta guztira 90 ikasle izango dira, hauen artean umeak, gazteak, helduak... Ez dute edonolako musika joko, gainera, The Beatles talde ospetsuaren katuak aukeratu baitdituzte: Penny Lane, All my loving, Hey Jude, Michelle, Ticket to ride...

Ikasle hauek denetatik joko dute; bonboa, platoak, kaxa, flautak, oboeak, klarinetak, saxoak, tronpak, bombardinoak, tronpetak, tromboiak eta tubak.

A Agenda

Urteurrena

■ **Tolosa.** Egunkaria Eguna izango da gaur 18:00etatik aurrera Tolosako plaza Berrian. Ekitaldi ugari izango dira; buruhandi eta erraldioen konpartsa, dultzaineroak, O+Hatz taldea, Mulanbo perkusio taldearen kalejira, Bonberenea txaranga, Udaberri eta Alurr talde-etako dantzarien emanaldia, Konponezinak koadrila, Izaro Saizar eta Elene Arandia abeslariaren saioa, bertsolariak... Martxo Ota-mendik hitzalditxoak ere eskainiko du.

Deialdia

■ **Tolosa.** Oriako Ehorzketak Zerbitzuak tanatorio berriak ate irekien jardunaldia egingo du gaur eta bihar. Gaur 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara bisitatu ahal izango da

eta bihar igandea berriz, 10:00etatik 13:00etara. Tanatorioa Usabal poligonoan dago, 120. partzelan (LICAR enpresaren parean).

Zinema

■ **Tolosa.** *Sherlock Holmes* filma ikusi ahal izango da Leidor aretoan gaur 19:30ean eta 22:30ean eta bihar 22:00etan.

Ikastaroa

■ **Zizurkil.** Nazioarteko Emakumearen Eguna dela eta martxoaren 20an autodefentsa ikastaroa antolatu dute emakumeentzat. Maitte Monroyk eskainiko du ikastaroa eta Atxulondo kultur etxean izango da 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era. Izen-ematea, Aurrera plazako udal bulegoetan egin daiteke eta 35 euro ordaindu behar dira.

Mendi irteera

■ **Ibarra.** Zugarramurdi-Sara-Urdazubi (Lapurdi) mendi irteera antolatu dute Ibarako Bai Euskal Herriarri eta Haitzetan Rajun mendi taldeak hilaren 28rako. Plazan 08:00etan elkartuko dira Lapurdi alderuntz ateratzeko. Zalantzak dituenak eta informazio gehiago nahi duenak 652 71 58 00 telefono zenbakira deitzea nahikoa izango duela argitu dute antolatzaileek.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943-67 06 48.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

A Agurrak



Zorionak!
Amair Tejeria Larrarte (Zizurkil).

Gaur 2 urte. Zorionak etxekoan partetik.



Zorionak!
Aitor Etxarren (Berastegi).

Gaur gure potxolok 2 urte, zorionak etxeko guztien partetik, muxu handi bat.

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31980 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	